

# KARMEN 2022 MARKINA JAIAK 2022 XEMEIN



2022<sup>to</sup>

MARRKINA

XEMEINGO



KARMEN  
JAIKAK

## "BADATOZ HAINBESTE ITXARON DITUGUN KARMEN JAIK!"

Pozik eta gogotsu gaude. Bi urteren ostean, Karmenak euren betiko esentzian goatzeko aukera izango dugu aurten. Garai zaila bizi izan dugu denok, eta ezer baino lehen, bidean geratu direnak eta falta ditugunak eduki nahi ditut gogoan. Zorionez, pandemia atzean uzten ari gara eta ospakizunak ere bueltan ditugu. Goatzeko momentua da.

Karmenak guztion jaiak dira; guztionak eta guztiontzat. Ahalik eta jai parte-hartzaileenak osatzeko helburuarekin, herritar, talde eta elkarten proposamenak entzun ditu udalak, eta ekarpen horiek gauzatzeko ahalegin guztia egin da. Jaietan den-denok gozatzea delako helburua. Hori horrela, adin eta gustu guztientzako orotariko ekintzak dakartza esku artean duzun egitarauak.

Eskerrak eman nahi dizkiet beraien ekarpen eta proposamenen bidez egitarau hau osatzen lagundu duten guztiei. Eskerrik asko baita udal-langileei, eta bereziki udal-brigadari, jaietan ere gure herriko kaleak garbi mantentzeko lanean arituko delako.

Ondo pasatzeko garaia da, eta osasunez egingo dugulakoan nago, beti ere gure espazio publikoa errespetatuz. Eta zelan ez: elkar errespetatuz. Ozen eta argi diogu: indarkeria matxistarik gabeko jaiak eta herria nahi ditugu.

**Jaietan ere, askatasunez eta errespetuz gozatu dezagun!**

### **Gora Karmen jaiak!**

Luis Egurrola Arakistain  
Markina-Xemeingo alkatea



## **NEREA IBARZABAL SALEGI** Bertsolaria

### **“Saiatu nahi nuke denei iritsiko zaien mezu bat ematen, ilusioarekin konektatzen”**

Nerea Ibarzabal Salegi (Markina-Xemein, 1994) izango da aurtengo Karmen jaietako pregoilaria.

#### **Zeuren izango zara gehien itxaron ditugun Karmen jaietako hasiera emango diena, udaletxeko balkoitik pregoia botata. Ilusioz, gogotsu, urduri... Nola zaude?**

Gogotsu bezain urduri. Grazia apur bat ere egiten dit, inoiz ez nuen nire burua udaletxeko balkoian irudikatu! Baina eskertuta nago, eta herriko bertso eskolari egindako omenaldi modura ere hartu nahiko nuke. Bertso eskoletan itzelezko lana egiten da gaztetxoak zein helduak zaletzeko eta plazarako bideak zabaltzeko.

#### **Zelan jaso zenuen pregoilari izateko gonbita?**

Ustekabean iritsi zen. Banekien finalaren ondotik omenaldiren bat antolatu nahi zutelako bertso eskolatik, baina Covid-aren azken olatuak ez zigun utzi. Bertso saio bat neukan lotuta txupinazoaren ordu berean, baina behingoagatik, jaien hasiera modu berezi honetan bizitzeko gonbita onartzea erabaki nuen.

#### **Pentsatu duzu herritarrei zer esango diezun?**

Banabil bueltaka, baina ez da erraza! Jendea txupinazoaren zain egongo da, eta ez nuke gehiegi luzatu nahi. Gainera, herria oso jende-talde anitza da. Saiatu nahi nuke denei iritsiko zaien mezu bat ematen, ilusioarekin konektatzen.

#### **Nola bizi dituzu zuk Karmen jaiak?**

Topera. Beti ahalegintzen naiz egun hauek libre hartzen egitaraua ahal bezainbeste zukutu ahal izateko. Norbere herriko jaietan beti sentitzen da halako euforia bat, poz konpartitu bat, batzuetan erdi irrealak dirudiena, baina niri energia handia ematen didana.

#### **Zein da zuretzat jaietako momenturik bereziena edo planik onena?**

Txupinazo osteko bizikleta-poteoa asko gustatzen zait, udaletxetik txosnetarako jaitsiera koloretan, baita paella-eguna ere. Baina egun bakoitzak bere xarma dauka, erritual moduko bat da. Aspaldian (edo inoiz) elkartu gabeko jendearekin berba egitea gustatzen zait gehien, betiko muga sozialak gainditzeko lizentzia hartzea.



### **Eta jaietako txokorik kuttunena?**

Txosnagunea. Ideal askatzaileetatik abiatuta antolatzen diren jai eredueta sinesten dut.

### **Urte-erdia igaro da Bizkaiko txapela lortu zenuenetik.**

#### **Aparraldia igarota, digeritu duzu lorpena?**

Olatua baretzen hasi denez, lasaiago nabil orain. Oso zoroa izan da dena. Udako bertso saioak bueltatu dira, eta herririk herri ibiltzeak lagunduko dit berriro lurra zapaltzen.

### **Zerbaitetan aldatu da Nerea Ibarzabal txapela lortu zuenetik?**

Orain denek esaten diote neke aurpegia daukala, baina agian zahartzen ari delako izango da. Beti ari gara aldatzen, eta eskerrak. Txapelak ziurtasuna ematen dizu, sinesten duzu gai zarela bertsoan ondo egiteko, baina ahaztu gabe txarto egiten ere ederto dakizula. Orekari eustea da gakoa: autoexigentea izan suntsitzaile bilakatu gabe.

### **Txapelketa Nagusian izango zara aurten.**

#### **Bizkaiko txapela buruan, modu diferentean joango zara?**

Kanpotik horrela irakurriko naute beharbada, baina Txapelketa Nagusia beste kontu bat da, faktore asko aldatzen dira hor. Ahalik ondoen egitera joango naiz, denen modura. Espero dudana da jendeak nigandik espero duenak ez itotzea.

### **Txapelketak txapelketa, askotan esan duzu plaza zalea zarela.**

#### **Zer ematen dizu plazak?**

Gertutasuna eta jolasa. Malguago izaten irakasten dizu, jendeari entzuten. Eskolarik onena da. Euskal Herriko ehunka herri, hiri, auzo, eragile eta lagun ezagutzeko aukera eman dit plazak, eta oso zortedun sentitzen naiz. Hizkuntza eta bertsoaritzaz bizitzeko hamaika modu daudela ikasi dut, eta horrek biak sentiarazten dizkit: umiltasuna eta harrotasuna.





# VEGA

## kafetegia

Pintxo bereziak

Abesua kalea n° 2, Markina-Xemein

**94 616 78 15**



# xuri

suministro industrialak



Tel.: 94 6167526

e-mail: xuri@xurisl.net

Kareaga Industrialdea, 11-53.

48270 Markina-Xemein



# Niko Jatetxea

ABESUA 2

MARKINA-XEMEIN

TELEFONO:

**946 167 528**

3ZUBI  
Guen kalea, 11  
94 616 81 70



# KARTEL LEHIAKETA

## 16 URTETIK GORAKOEN KATEGORIAN:

1. SARIA: "Aurten bai"



Igor Aizpiri Garate  
Sonia Garcia Fuentes


1. SARIA: "Berriro bueltan"



Amaia Ibarluzea Canales


## 16 URTETIK BEHERAKOEN KATEGORIAN:

1. SARIA:



Laura Liebana Garin





# GUENAGA

★ Harategia eta urdaitegia ★

★ Bertoko baserrietako haragia ★

Markina-Xemein

Guen kalea, 11.

Tlf.: 94 6166454



# AKROMION

Fisioterapia Zentroa

Nerea Jaio

627231411

Erdotza etorbidea 10, behea



# Eneida

ESTETIKA ZENTROA

Frai Bartolome 3 Markina - Xemein  
Tel.: 94 616 0061



# aldape

garajea

ERDOTZA Etorbidea 56. OTOLA Industrigunea

t.f. 94 616 78 34 **MARKINA XEMEIN**



## BARRAKAK

Azken urteetan egin izan den moduan, Bizenta Mogel parkean kokatuko dira barrakak aurtengo Karmengo jaietan. **Uztailaren 6an** hasiko dira barrakak muntaketa lanak eta **hilaren 18a arte** izango dute baimena bertan egoteko. Muntaketak hasi aurretik aparkalekua hustu egin beharko da. Hori eta izango diren trafiko aldaketak jakinarazteko kartelak jarriko dira aurretiaz.

### Barrakaren prezioa:

**Bidaiaaren prezioa: 2,50 €. 5 bidaiaiko bonoa: 10,00 €.**

**Aurten, herriko eguna uztailaren 18a izango da. Egun horretan barrakaren bidaiaaren prezioa gehienez 1 eurokoa izango da.**

Udalak eraso eta jarrera sexisten aurka lan egiteko konpromiso irmoa duenez musika duten barrakak ez dute abesti sexistarik/matxistarik ipiniko, emakumea iraindu eta objektu bezala tratatzen dituztenak alegia. Horrez gain, barraketan, karteletan edo azpiegituretan irudi sexistarik ez da onartuko, ezta mikrofonoetatik komentario sexista, matxista edo homofoborik egitea ere.

Aurten zaratarekiko hipersentsibilitatea duten edo behar bereziak dituzten hurrek ere berdin gozatzeko, uztailaren 16an eta 18an, arratsaldeko 17:00etatik 18:30era, barrakaren gunea musika gabe egongo da. Hori bermatzeko, Udalak txartel berezi bat banatuko du, barrakagunean lehentasuna izan dezaten.



Urtero bezala euskararen presentziari ere arreta berezia eskainiko zaio. Baretik, barraketan jarriko diren herritarrei zuzendutako kartel, prezio zerrenda eta abar euskara hutsean eskainiko dira. Era berean, musika bateratua jarriko da barraka guztietan, eta musikan ere euskararen presentzia zainduko da, batez ere barraketan jende gehien dabilen orduetan.

## TXU-TXU TRENA

Uztailaren **15etik 18a**,  
**TXU-TXU TRENA** egongo da!

Goizeko **11:30**etik  
eguerdiko **13:30**era eta  
arratsaldeko **16:30**etik  
iluntzeko **20:30**era.





# MARKINA-XEMEIN TAXIA

Iñaki Arakistain  
(Akis)

648 25 52 71

*Berehalako zerbitzua!*

# iranai jantziak



Guen kalea, 3  
MARKINA-XEMEIN  
653 785 249

# Kintal

intal Kintal Kintal



Tif.: 946169018

# BILKA *Gorka Bilbao* MASAJEAK


Kirol masajeak  
Terapeutikoak  
Osteopatia



690 374 752

Karmengo Kalea, 13 - Behea (eskuina)  
Markina-Xemein (Bizkaia)

# LUNPE



Tif.: 946169717

# EDER TABERNA



Okerra kalea 6  
Markina-Xemein

# PATXUA



*tabernie*

MARKINA-XEMEIN

94 6854280



# Naroki


KAFETEGIA  
MARKINA-XEMEIN

Agustín Deuna, 4  
655724890

# IRUROK Pub

== MARKINA - XEMEIN ==

Jan da edan dotore  
da etorri gero be!



Argazkia: Mikel Reina Barros (Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza)

AGINAGA  
argi-ındar

ENERGIA  
BERRIZTAGARRIAK



info@aiaginaga.com tlf.: 946167720

Artibai kalea 30 behea Markina-Xemein 48270

**anehizkuntzak**  
ingelesa & alemana

tfnoa. 658 73 13 12

Abesua 16  
Markina-Xemein



**SARRIS**



Hemen bebai  
merkatari elkarte

UZTAILAREN 1etik 19ra

1. ERAKUSLEIHO  
LEHIAKETA

2022

GAIA Markina-Xemeingo  
Karmen jaiak  
"Herri bazkaria".




Hemen bebai  
merkatari elkarte  
www.hemenbebai.com

• ANTSOTEGI •

HOTELA | JATETXEA

946 169 100



## UZTAILAK 1 BARIKUA

17:00 ZESTA PUNTA ELORRIO  
MEMORIALEKO PARTIDAK UNI frontoian



HEMEN BE BAI MERKATARI ELKARTEKO  
I. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

## UZTAILAK 2 ZAPATUA

20:00 MARKINA-XEMEIN JAI ALAI GRAND SLAM  
UNI frontoian  
Aaron-Ibarluzea vs Antxon-Atain II (Elite txapelketa)  
GRAND SLAMEKO 1. finalerdia

## UZTAILAK 3 DOMEKA

10:00 NESKA ETA MUTILEN ZESTA PUNTA  
TXAPELKETAKO PARTIDAK UNI frontoian

## UZTAILAK 6 EGUAZTENA

20:00 NESKA ETA MUTILEN ZESTA PUNTA  
TXAPELKETAKO PARTIDAK UNI frontoian

## UZTAILAK 8 BARIKUA


18:00 "PIZTU! EmakumeON energia"  
UMEENTZAKO ANTZERKIA  
Uhagon kulturgunean





# Martiaritu Aseg., s.l.

**Mota guztietako Aseguruak**  
**Gestoria**



seguros@martiaritu.eu

Beko Benta 14

48270 Markina-Xemein

94 616 62 62 - 688 65 11 59

Turismoa eta ostalaritza · Merkataritza · Industria · Ekintzailtza · Talentua



## Leartibai

Garapen bidea gara.

Fundazioa



📍 [www.leartibaifundazioa.eus](http://www.leartibaifundazioa.eus) ☎ 94 616 91 72 ✉ [kaixo@leartibaifundazioa.eus](mailto:kaixo@leartibaifundazioa.eus)

Xemein Etorbidea, 12-A | Lea-Artibai Berrikuntza Gunea | Markina-Xemein (Bizkaia)

## UZTAILAK 9 ZAPATUA

**11:00**      **XII. DUATLOI TXIKIA** Zelaian  
7 eta 15 urte bitarteko gaztetxoentzako.  
Izen-ematea: alarabi.triatloi@gmail.com helbidean  
uztailaren 6a orduko.



**20:00**      **MARKINA-XEMEIN JAI ALAI GRAND SLAM** UNI frontoian  
**Alex-Danel vs Eñaut-Manzi** (Elite txapelketa)  
**GRAND SLAMEKO 2. finalerdia**

## UZTAILAK 10 DOMEKA JUBILATUEN EGUNA

**09:45**      **TXIRRINDULARITZA:**  
**Kadete mailako emakumezkoen II.**  
**Lea-Artibai Txallengearen 2. etapa (44,50 km)**  
Ibilbidea: Markina-Xemein, Plazakola, Berriatua, Ondarroa, Mendexa,  
Lekeitio, Oleta, Milloigane, Plazakola, Markina-Xemein (helmuga Aldaolan)



**10:00**      **NESKA ETA MUTILEN ZESTA PUNTA**  
**TXAPELKETAKO PARTIDAK** UNI frontoian

**11:00**      **MARKINA-XEMEINGO 44. TXAPELKETAKO**  
**FEDERATUEN ESKU PELOTA FINALAK** frontoi txikian

**11:30**      **TXIRRINDULARITZA:**  
**Junior, 23 azpiko eta elite mailako emakumezkoen**  
**II. Lea-Artibai Txallengearen 2. etapa (82,20 km)**  
Ibilbidea: Markina-Xemein, Plazakola, Milloigane, Oleta, Gizaburuaga, Aulesti,  
Munitibar, Gontzugarraigane, Ziortza-Bolibar, Iruzubieta, Markina-Xemein,  
Plazakola, Milloigane, Oleta, Gizaburuaga, Aulesti, Munitibar, Gontzugarraigane,  
Ziortza-Bolibar, Iruzubieta, Markina-Xemein (helmuga Aldaolan)

---

**12:30**      **MEZA** Karmengo elizan

**14:00**      **JUBILATUEN BAZKARIA** Bauskainen



KALE OKERRA 94 616 86 95



# CERVEZAS ALHAMBRA

Ospatu deiguzan jaixek betiko  
goguz eta poztasunaz!!!



**EUSKITZE**  
LIKOR & ARDOAK




**Autos Erdotza S.L.**



Tlf.: 94 616 81 94  
608 513 414 WhatsApp

**Mahou**  
★ ★ ★ ★ ★



Tlf.: 946851999



**IXAIE** IURRINDEGIA ETA OROIGARRIAK

Artibai 6 94 6166323





# KARMEN JAIAK 2022

## MARKINA-XEMEIN



Antolatzaileak:

markina-xemein  
udala



Laguntzaileak:



Markina-Xemeingo kultur eta kirol elkarteak








**maza**  
erreformak

629 144 307

 **MAPFRE**  
Aseguruak

Ianire Aizpitarte Sarasketa

 946169073  
 629537040  
 Frai Bartolome plaza, 1



...ESKEINTZEN DITUGUN BESTE ZERBITZU BATZUK...

- Ibilgailuen transferentziak
- Abokatu kontsulta
- Alokairu hitzarmenak
- Asesoria / aholkularitza integrala
  - Enpresa, autonomo eta partikularrentzako
  - Familia, kontabilitate, IRPF eta lege aholkularitza



**TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK!**

*Inor ez inon menpien, jaixetan be antzien!*

Artibai kalea 1, 3 behea  
48270 Markina-Xemein  
94 616 97 20  
rakelestetik@hotmail.com



Erdotza Etorb. 10 - 48270 Markina - Xemein  
Tlf.: 94 616 66 67



Gure kostako eguneko arrain freskoa eta  
etxeko produktuak (hegaluzea...)

Frai Bartolome Plaza, 4 | Markina-Xemein

615 755 507

*Alma Brea Caballero*

**PODOLOGOA**

*Ostekokalea, 11 behea*  
Markina - Xemein

Cita previa | Aurretiko hitzordua  
**652 07 82 72**

# UZTAILAK 15 BARIKUA

## BADATOR ALARABI!

**16:30-19:00 TXIRRINDULARITZA:**

**Junior mailako Bizkaiko XXVII. Itzuliaren 2. etapa.**

Ibilbidea: Markina-Xemein, Plazakola, Milloigane, Oleta, Lekeitio, Ispaster, Lekeitio, Oleta, Gizaburuaga, Aulesti, Munitibar, Gontzugarraigane, Ziortza-Bolibar, Iruzubieta, Markina-Xemein, Plazakola, Milloigane, Oleta, Gizaburuaga, Aulesti, Munitibar, Gontzugarraigane, Ziortza-Bolibar, Iruzubieta, Markina-Xemein (helmuga Aldaolan)

**18:00 ALARABIREN JAITSIERA** Xemeindik udaletxe aurrera

**18:15 JAIEN HASIERAKO TXUPINAZOA**  
Goikoportalean. Alarabia aurkeztea.

**Ondoren** Udaletxeko balkoitik **PREGOIA IRAKURRI ETA TXUPINA BOTAKO DU NEREA IBARZABAL SALEGIK**

**Ondoren** **BURUHANDI ETA ERRALDOIEKIN TXISTULARIEN KALEJIRA ETA KUADRILLEN BIZIKLETA KALEJIRA**

**17:00 ZESTA PUNTA ELORRIO MEMORIALA**  
UNI frontoian  
**Gazte, nagusi eta elite mailako finalerdiak**

**21:00 DANBORRADA** Xemeindik hasita  
Amaiera Goikoportalean

**22:30 KONTZERTUAK** Zelaian:  
**HILBERA + TREMENDA JAURIA + DUPLA**


**HILBERA**  
●●●●●●●●



MIREN LORE  
ileapaindegia

Okerra kalea, I - behea  
Markina - Xemein  
946168207

m.loreileapaindegia@gmail.com



Abesua kalea, 22 MARKINA-XEMEIN

Denda: 94 616 75 04



FORJA  
ARTISTIKOA

César Alcoz

cesaralcozforja@arbaso.com

www.cesaralcozforja.com

Tel./Fax 94 616 00 77 | Móvil 636 596 768  
Pol. Ind. Karcaga II, nº 42 | Markina-Xemein

PAKO  
ARRAINDEGIA

Noemi

ARRAIN FRESKO eta IZOZTUAK

Mobila: 696 428 480  
Artibai, 26 - Tel.: 94 616 89 11

48270 MARKINA-XEMEIN



FOTERO  
OGIAK

Tel.: 660 729 956



Erein da Erain  
mugimendua sentituz

ALAZNE  
MADARIAGA ARRIAGA

656711476



SKB

info@sk8diseinua.com

Karmengo kalea 21, behea  
Markina - Xemein  
Tlfn.: 944 65 66 92  
Mugikorra: 688 762 707

° Kopistegia

° Diseinu  
grafikoa

° Zigiluak

° Errotulazioa

° Opariak

° Argazkiak  
inprimatu

# UZTAILAK 15 BARIKUA

## BELDUR BARIK GUNEA ETA ANIMAZIO FOTOGRAFIKOA

**20:30-23:30 Abesua 1-3 parean** Txosnagunearen ondoan **BELDUR BARIK GUNEA** aisialdi eta jaietan jarrera eta eraso matxistak prebenitzera zuzenduta dago.



Ezinbestekoa da gazteak indarkeria matxistaren kontra inplikatzeko, premiazko beharrezana da, eta hori da lan honen jatorria. Begirunea, berdintasuna eta autonomia oinarri duten jarrera eta portaerak bultzatu nahi dira.

## TESTING PROGRAMA (Ai Laket!)

**00:00-03:30** Txosnagunearen ondoan

Dibertsio guneetan droga ilegalekin kontsumoarekin lotutako arriskuak murriztea du helburu TESTING programak.

Batez ere, beren aisialdian substantzia ilegalak kontsumitzeko asmoa duten pertsonengana zuzentzen da, bereziki lehenengo aldiz kontsumitzekotan direnengana.

Jai giroan egun kontsumitzen diren substantzia arruntenen testak egiten dira: kalamua, anfetamina edo speed, kokaina, MDMA edo estasia, LSD, ketamina etab.



Ferrugas norte SL. Zerbitzugunea  
Bekobenta 26  
Markina - Xemein  
Tlf.: 946166344



**Grupo  
Fagra**

**Carlota**

DEKORAZIOA



+34 946 166 142 / +34 660 387 430 · info@mzfarmacia.com  
Artibai 36, 48270, Markina-Xemein, Bizkaia  
mzfarmacia.com



**MZ FARMAZIA**

ONGIZATEA MAITATUZ

**Suministros  
TALLERES UNAI S.L.**

Mota guztietako lorategientzat  
konponbideak



MARKINA-XEMEIN  
Pol. Ind. Kareaga I - Nº 14 - Pab. 4  
Tel.: 94 616 92 54

GERNIKA-LUMO  
Pol. Ind. Amunaga 2  
Tel.: 94 414 43 92

info@talleresunai.com · www.talleresunai.com



**Husqvarna**  
automower

**Cub Cadet**



**STIHL**





# DANBORRADA

MARKINA-XEMEIN

1

**GU MARKIÑARRAK GARALA  
MUNDUAK JAKIN DAIALA  
ETA EUSKERA MAITATZEN  
LENEN MARKIÑA DALA**

2

**GOAZEN BAI, GOAZEN BAI  
MARKIÑAR DANOK BETI AURRERA  
GOAZEN BAI, GOAZEN BAI  
BIHOTZAK ALAITZERA  
(BIS)**

3

**GUK MARKIÑA MAITE DOGU  
DENON AURREAN DIÑOGU  
TA MARKIÑAR IZATEAK  
POZIK JARTZEN GAITUGU**

4

**GOAZEN BAI, GOAZEN BAI  
MARKIÑAR DANOK BETI AURRERA  
GOAZEN BAI, GOAZEN BAI  
BIHOTZAK ALAITZERA**

5

**JAKINTSUAK DIÑOENA  
EUSKERARIK GARBIENA  
ANTXINATIK ENTZUN DOGU  
DALA MARKIÑARRENA**

6

**GOAZEN BAI, GOAZEN BAI  
MARKIÑAR DANOK BETI AURRERA  
GOAZEN BAI, GOAZEN BAI  
BIHOTZAK ALAITZERA  
(BIS)**


7

**GIPUZKOAN TOLOSARRAK  
TA BIZKAIAN MARKIÑARRAK  
DITU ZAINDARI ONENAK  
EUSKERA AMA ZAHARRAK**

8

**GOAZEN BAI, GOAZEN BAI  
MARKIÑAR DANOK BETI AURRERA  
GOAZEN BAI, GOAZEN BAI  
BIHOTZAK ALAITZERA  
(BIS)**



946083232 | Markina-Xemein 

Eneko Olaeta  
**608 876 598**  
 Markina-Xemein




# ARRIZABALAGA INMOBILIARIA

Juanjo Arrizabalaga

Guenkalea 14, behea  
 Tel. 685 754 128 - 651 704 373  
[www.arrizabalagainmobiliaria.com](http://www.arrizabalagainmobiliaria.com)



**UHAÇON** kulturgunea

  Bulegoa: 946166303  
 Xemein etorbidea, 10 Taberna: 665212689

Artibai 1, MARKINA - XEMEIN

**Ka  
 rra  
 ma  
 rru**  
 arrandegia



ONDARROAKO ARRAIN FRESKOA

**685 75 11 86**  
**94 616 75 66**

**MENDIBIL**



**TABERNA**

**Zeharkalea 7 - 94 616 83 44**



Hanburesak / Sandwichak / Entsaladak  
 Bokatak / Plater konbinatuak / Beste batzuk



# UZTAILAK 16 ZAPATUA

## KARMEN EGUNA

- 09:30 TXISTULARIEN KALEJIRA**
- 10:00 KARMENETAKO ESKU PILOTA PARTIDAK** frontoi txikian
- 11:00 MEZA** Xemein Abesbatzak abestuta Karmengo elizan
- 11:00-15:00 IV. EIXU KARMENETAKO ARTISAU**  
**17:00-20:30 ETA SORTZAILEEN AZOKA** Zelaian
- 12:00 AURRESKUA** Goikoportalean
- 13:00 DEBAKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**  
**ETA KONTZERTUA** Plazabarripean
- 17:00-19:00 MX3T BOLA JOKO TXAPELKETA**  
Uhagon atzeko bolatokian
- 19:00-20:30 BERTSO SAIOA** Uhagonen  
Bertsolariak: Alaia Martin, Maddalen Arzallus,  
Igor Elortza eta Txaber Altube. Gai-jartzailea: Amaia Errasti.



**19:00 MARIACHI IMPERIAL "ELEGANCIA MEXICANA"**  
Goikoportalean

**20:30 MARKINA-XEMEIN JAI ALAI**  
**GRAND SLAMEKO FINALAK** UNI frontoian

**23:30 KONTZERTUA** Zelaian: **SU TA GAR**



Berrikuntza  
eta konfiantza



[www.berakruz.eus](http://www.berakruz.eus)

☎ 94 616 60 30

✉ [idazkaritza@berakruz.eus](mailto:idazkaritza@berakruz.eus)

**obra berriak**  
**zaharberitzeak**  
**parte-hartzea**  
**jolastokiak**  
**espazio publikoa**  
**balorazioak**  
eraginkortasun energia ziurtagiria CEE  
eraikinen ikuskaritza teknikoak ITE  
jarduera-txostenak

**javier de andres**  
**ianire de andres**


✉ [jandres@arquiapro.com](mailto:jandres@arquiapro.com)  
[iadeandres@gmail.com](mailto:iadeandres@gmail.com)

☎ Javier • 629389163  
Ianire • 629686579  
estudio • 946167826

📍 **Urbite 9, behea**  
**48270 Markina-Xemein**

**Hirigintza**  
**arkitektura**  
**espazioak**  
**kolektiboki**  
**eraldatzen**

**Peñascal**  
k o o p e r a t i b a



*Hezi Landuz. Aprende trabajando.*

# UZTAILAK 17 DOMEKA

## KUADRILLEN EGUNA

**09:30 TXISTULARIEN KALEJIRA**

**11:30 OPEN BIZKAIA ESKU PELOTA PARTIDAK**  
frontoi txikian

**12:30 KALEJIRA: MUSIKA ESKOLA,  
TRIKITIXA ESKOLA ETA ALARABI**

**14:00 HERRI BAZKARIA** Zelaian  
(Hemen Be Bai merkatarikartaren SARI BEREZIA merkatarikarteko dendetan egindako erosketa tiket handienari)



**16:30 HERRITXOUA**

**18:30 MOTXAILA BAND ELEKTROTXARANGA** kaleetan zehar

**19:30 KONTZERTUA** Zelaian: **OXABI**





**EZENARRO**  
ROZTEGI

Galartza Industrialdea z/g  
48277 ETXEBARRIA (Bizkaia)  
Tf.: 94 616 75 00  
Fax: 94 616 78 72

e-mail: ezenarro@ezenarro.com  
www.ezenarro.com



**oizbarren**



Oizbarren Eraikuntzak



@oizbarren



+34 946 16 80 32



MIBA  
ERKOP



GIZATASUNA  
LANEAN

MONDRAGON

Finantzak  
Industria  
Banaketa  
Eragutza

**Baserriko pentsu edo lanabezak behar ezkeror...  
zuk deitu...eta guk eroango dizugu etxera**

Etxebarría 946167884  
Markina 946168433  
miba@miba.coop



**MIBA**  
ERKOP

# UZTAILAK 18 ASTELEHENA

## UMEEN EGUNA

**09:30 TXISTULARIEN KALEJIRA**

**11:00-14:00 UME ETA GAZTETXOEN PARKEA**

**16:00-19:00** Zelaian eta Arkupe parean  
Kirol egokitua, puzgarriak eta egurrezko jolasak

**10:30-13:00 GYMKANA EXTREME** Zelaian, gaztetxoentzako  
kuadrilla gymkana jolasa.  
Adina: 12-16 urte (10-12 laguneko taldeak)

**11:30 TRIKITIXA ESKOLAREN ETA ALARABIREN  
KALEJIRA, BURUHANDIEKIN ETA ERRALDOIEKIN**

**16:00 MUS ETA BRISKA TXAPELKETA**  
Plazabarripean

MUS

- 1. Saria: 130 € eta txapela
- 2. Saria: 90 € eta garaikurra
- 3. Saria: 80 €
- 4. Saria: 50 €

BRISKA

- 1. Saria: 130 € eta txapela
- 2. Saria: 90 € eta garaikurra
- 3. Saria: 70 €
- 4. Saria: 50 €


- \* Lehenengo sailkatzen den herrikoarentzat garaikurra
- \* Parte hartzaileek 18 urte beteta izan beharko dituzte
- \* Saria eskudirutan jasotzeko, irabaleek NA aurkeztu eta dagokion ordainagiria sinatu beharko dute.

**16:00-19:00 TIROLINA ETA ZUHAITZ ESKALADA**  
Zelaian, gaztetxoentzako

**18:30-20:00 OIHAN VEGA DJ** Zelaian

**22:00 PERCULIGHTS**  
**KALE IKUSKIZUNA** kaleetan zehar

**Ostean ALARABI ERRETZEA**  
Zelaian



# XABIER EPELDE

arkitektura arduratsua

Bioeraikuntza - Geobiologia azterketak - Aholkularitza  
Gremioen koordinazioa - Barne erreformak - CEE - ITE  
Txosten teknikoak - Toxiko analisiak - Zaharberritzeak



BALIO  
ETIKOAK



ESPASIO  
OSASUNGARRIAK



INDEPENDENTZI  
ENERGETIKOA



MATERIAL  
ALTERNANTZIA

[www.xabierepeldearkitektura.com](http://www.xabierepeldearkitektura.com) 680950170



FISIOTERAPIA ZENTROA  
TXOMIN TXURRUKA

➔ Artibai 12, behea  
Markina-Xemein  
Tel.: 94 616 60 32



## Zelaialde

MARKINA · XEMEIN



[www.zelaialde.com](http://www.zelaialde.com)

ERAIKUNTZA BERRIA  
Berriz ere Berdea

Irudi birtual ez lotesleak



 **grupo eibar**  
inmobiliario

630 248 383  
[comercial@grupoeibar.com](mailto:comercial@grupoeibar.com)  
[www.grupoeibar.com](http://www.grupoeibar.com)

MARKINA- XEMEIN:  
Okerra kalea 2

# 4. JA Jazz

## aldia

2022 uztailak 21-22-23  
markina-xemein

- 
- 21** eguna  
18:00 **LINDY HOP** dantza tailer irekia arkupe aurrean  
19:00 **IRUÑA JAZZ BRASS BAND** kalez kale
- 22** barikua 19:00 Uhagonen  
**ITZIAR YAGÜE QUINTET**
- 23** zapatua 19:00 Uhagonen  
**TRAVELLIN' BROTHERS**

**UHAÇON**  
kulturgunea



**Bizkaia**  
Berrikuntza  
Gobernazio Nagusia

# UNAI ITURGINTZA



MARKINA XEMEIN  
Karmengo 14 - Behea

**BAIMENDUTAKO  
INSTALATZAILEA:**

- BEROKUNTZA
- ITURGINTZA
- GASA
- ENERGI BERRIZTAGARRIAK

TEL. 649081472 / 946160055  
unaiazizmendi@hotmail.com



# Lekoizpe S.L.

Galdaragintza, Mekanizatuak,  
Multzoen muntaiak eta Kabinak  
produkzioko lerroentzako

Tel.: 94 616 83 47 Fax: 94 616 74 40  
Kareaga Industrialdea, 1 Apdo. 23  
48270 MARKINA-XEMEIN / Bizkaia  
www.lekoizpe.com



# k kutxabank

# Berbaro)) Logopedia


Dunixe Burgoa - Maite Ibarluzea  
138 Kolegiatu zenb. 139

Xemein Etorbidea, 5 behea • Markina-Xemein • 94 616 96 51

berbaro@hotmail.com

www.berbarologopedia.com

# TXARAKA KONTENEDOREAK, S.L.



48250 ZALDIBAR - Bizkaia / 20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa  
EUX/002/13                      EUX/007/21  
Tel. 943 121 511 - 630 267 101 - 659 172 954

- Hondakin balioztapen zentroak eta kudeaketa.
- Birziklatutako aridoak CE markaketarekin.

- Plantas de valorización y gestión de residuos.
- Áridos reciclados con marcado CE.

txaraka@txaraka.com

www.txaraka.com

# Trans Katillu S.L.



www.transkatillu.com  
609 402 561 // 619 452 380

ONDO PASA JAIXETANI!



## UZTAILAK 23 ZAPATUA

16:30ean  
hasita

**NESKA ETA MUTILEN ZESTA PUNTA  
TXAPELKETAKO FINALAK** UNI frontoian

**ZESTA PUNTA ELORRIO MEMORIALEKO GAZTE,  
NAGUSI ETA ELITE MAILAKO FINALAK**  
UNI frontoian



## UZTAILAK 24 DOMEKA

09:00-17:00 **II.MARGO LEHIAKETA** Aire librea

12:00 **HERRI KIROLAK** Zelaian

**Aizkoran:**

Irati Astondoa

**Harrijasotzen:**

Udane Ostolaza

**Aizkoran:**

Iker Vicente (Euskadiko txapelduna)

eta Aratz Mugerza vs

Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugerza



13:00

**AIKO** taldearen eskutik **DANTZALDIA**  
(dantza maisuarekin) Arkupe aurrean  
"BBK Dantzaldi ibiltaria".



BARNE DISEINUA

ERREFORMAK, ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

ZEAR KALEA, 5 48270 MARKINA-XEMEIN  
94 616 63 26 - 676 972 034  
ibane@ibane.es

@ibane\_barnediseinua f ibane.barnediseinua



eika da, euskara da, gu gara



EIKA, S.COOP. Urresolo, 47 48277 Etxebarria, Bizkaia [www.eika.es](http://www.eika.es)

# UZTAILAK 24 DOMEKA

## II. MARGO LEHIAKETA aire librean

**ERREGISTROA: 09:00-10:00** udaletxean. Zigilua eta zenbakia emango zaie materialei eta parte-hartzaileek fitxa bat bete beharko dute.

**LANEN AURKEZPENA: 16:00-17:00** Uhagon kulturgunean. Parte-hartzaileak 2 mihise egin ahal izango ditu, baina bakarria aurkeztuko du lehiaketara. Lanak sinadura gabe aurkeztu beharko dira.

**GAIA:** Markina-Xemein (paisaiak, inguruak, herriko txokoak, eraikinak, herritarrak...)

**TEKNIKA:** Librea. Edozein material erabili ahal izango da margotzeko.

**TAMAINA:** Mihisearen gutxieneko tamaina: 50x70 cm; gehienezko tamaina: 100x100 cm. Parte-hartzaile bakoitzak ekarri beharko ditu bere mihiseak eta margoak egiteko beharrezko material guztia (kaballeteak, etab.).

**EPAIMAHAIA:** Pintura eta arte munduko herritarrek osatuko dute. Erabakia 19:00ak inguruan jakinaraziko da.

**ERAKUSKETA:** Aurkeztutako lan guztiekin erakusketa bat egingo da Uhagon kulturgunean.

### SARIAK:

**Helduen kategoria (18 urtetik gora)**

1. saria: 800 €
2. saria: 600 €
3. saria: 500 €

### Gazteen kategoria

**Infantilen maila (0-12 urte): 100 €**  
**Jubenilen maila (13-17 urte): 200 €**

### Artista lokala:

**Lehenengo markina-xemeindarrari saria: 150 €**



Oinarriak [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) web orrian ikusgai.

# BEKOBENTA ESKOLA PUBLIKOIA



HAUK eta LEHEN  
HEZKUNTZAKO  
IKASTETXEA

MARKINA-XEMEIN

BEKOBENTA 3 • 48270 MARKINA-XEMEIN ☎ 94 616 61 30 ✉ 014332aa@hezkurta.net

## Miguel Angel Etxaniz Guenetxea

Kareaga Ind. Pab.1-6A

Ilunzar auzoa, 3

Tel/Fax: **946 160 048**

Mob. **605 718 835**

etxanizanitua@telefonica.net

48270 **MARKINA-XEMEIN**



## Eraikuntzak eta Igeltseritza



**AZPIEGITURAK ETA  
ZERBITZUAK**

Markina-Xemein

Tel.: 946 167 436

email: gaimaz@grupogaimaz.com

[www.gaimaz.com](http://www.gaimaz.com)

Eskualdeko lehen  
sektorearen alde lanean



**LEA-ARTIBAI**

Berrikuntza Gunea, Xemein etorbidea 12

A - Markina-Xemein

Tf: 946169088

landagarapena@leartibaifundazioa.eus



**Hamen  
Bertokoa**

Bertoko produktuak balioan  
jartzeko proiektua



OLASOLO  
DISEINU ESTUDIOA

2021ean egindako proiektu baten argazkiak



\*  
erreforma  
integralak egiten  
doguz; erosi  
gurekin  
altzarixek eta  
diseinu  
proiektue doan  
urten ahal jatzu  
;-)

informazio  
gehiagorako jarri  
gurekin kontaktuen.

DISEINUA · PROIEKTUAK · DEKORAZIOA · ERREFORMAK

@estiolasolo



688 638 883

Abesua Kalea 1, MARKINA-XEMEIN



**OLASAGASTI**  
DELICIAS DEL MAR CANTÁBRICO



Especialista en la elaboración de  
conservas de Bonito, Atún Rojo,  
Anchoa y Caballa del Cantábrico.

[www.olasagasti.es](http://www.olasagasti.es)

Conservas Dietéticas S.L. Avda Euzkadi 36, 48270 Markina (Bizkaia) - Tfno: 94 616 62 51 - Fax: 94 616 65 58

# Hortz klinika Zabala

Susana Zabala Doktorea  
Odontologo - Medikua



94 616 91 96

Zabala enparantza, 4 (San Agustín, 1-izkina)

## ATEUN



### HARATEGIA URDAITEGIA

**BERTOKO BASERRIETAKO OKELA**  
etxean osagai naturalekin  
hazitako txarrien txerrikiak

|                     |              |                |
|---------------------|--------------|----------------|
| Artibai, 32 behea   | 94 616 76 69 | MARKINA-XEMEIN |
| Iparragirre, 10     | 94 683 3523  | ONDARROA       |
| Romualdo Galdos, 12 | 93 320 6194  | EIBAR          |



*estitxu*  
masajeak & osteopatia

Arretxinaga Kalea 9 - 48270 Markina Xemein  
634 503 161



Estitxu Masajeak



Frai Bartolome, 3



 **Nemak**  
*Innovative Lightweighting*

Galartza poligonoa, 1 • 48277 ETXEBARRIA  
telf. 946160000 [www.nemak.com](http://www.nemak.com)





**KARMEN  
JAIK**

2022

MARKINA-XEMEIN